# BIZI!!
# Iñigo Aritza ikastolaren eguna



## Olaztin, ekainaren 9an

Ikastola bizi izan zuten eta bizi dugun guztiok, gonbidatuta gaude, izan irakasle, ikasle, guraso edota langile.

Urdiain, Altsasu, Olazti, Ziordi

- Helduak:15
- Umeak: 5
- Ikasle ohiak: 7

(25 urte bitarte)

€

# BIZI HERRI BAZKARIA

## Olaztiko Clinkerreko parkean

**Txartelak salgai:**

**Olazti**: Clinkerren eta Ogiberrin.

**Ziordi**: Etxaleku tabernan.

**Altsasu**: Nafarroa Oinezeko dendan, Iñigo Aritzan eta Biltokin.

**Urdiain**: Kaluxan.

## Menua

* Patatak lukainkarekin
* Oilaskoa
* Postrea eta kafea

**TXARTELAK EROSTEKO AZKEN EGUNA: EKAINAK 4**

Último día para comprar los tickets, 4 de JUNIO

# Egitaraua:

- 11:00etan, haurrentzako tailerrak, jolasak, tirolina, futbol 5, pilota, herri kirolak eta buruhandiak.
- 12:00etan, trikitilariak.
- 12:30tan, irakasle ohiei esker ona eta "Euskaraldia" ekitaldiaren aurkezpena.
- 14:30etan, bazkaria.
- Ondoren, ikasleen karaokea eta ur zezena.



## Irakasle kuttunei esker ona!!

Karmele, Edurne, Idoia, Belen, Amelia, Joxi,
Gotzon eta Nekane.
35 urte baino gehiago gurekin!!

ESKERRIK ASKO!!

Izan zinetelako gara!!

# BIZIkanta

Badator euskararen
Haize zirimola
Oztopoen gainetik
Dakar bizi bola.

Gaztain zuri ta beltzak
Ardi gurpildunak
Erbi geldoak eta
Bustitako lumak.

Bizi, bizi euskararen hazi
Sakanako lurretan bizipozez bizi
Bizi bizi ta biziarazi
Nafarroa oinezen zu lehendabizi!

Haritz adar okerrak
Lore dardartiak
Kilker erremerreak
Izar basatiak.

Datozen beleak ta
Bertako zozoak
Erle hegal bakarrak
Gor dauden usoak.

Atxitamutxita bat
keinuka kaletan
Armiarmak esan du
Sare sozialetan.

Bizi, bizi euskararen hazi
Sakanako lurretan bizipozez bizi
Bizi bizi ta biziarazi
Nafarroa oinezen zu lehendabizi!

Bi hostodun hirusta
Kontatzen ikasten
Bidertzeko masusta
Nora doan ahazten.

Sator makil zuridun
Kale kantoi katu
Zapaldutako onddo
Txori kaiolatu.

Bizi, bizi euskararen hazi
Sakanako lurretan bizipozez bizi
Bizi bizi ta biziarazi
Nafarroa oinezen zu lehendabizi!

IZI
Nafarroa Oinez'18
Altsasu